

AITTITTA MAKURRA

<https://voca.ro/17r5WlesRRPc>

Lekeitioko itsasontzi bateko
patroiak bihotzekoa izan zuen
portutik irtetzera zihoazenean,
bera osatzen zenbiltzatela, baltzez jantzitako gizon bat
pasatu zen portutik.



Arrantzale bati esan zion zer egin behar zuen patroia
salbatzeko. Gizonak egin zuen eta patroia osatu egin zen.
Baltzez jantzitako gizonak arrantzaleari esan zion, bere
bizitza jendea osatzera eman behar zuela, baina bere
teilatuan belarra hasten zen momentuan bere familiari
agur esan eta hondartzara joan beharko zela.
Honela, arrantzalea 90 urte bizi izan zen eta jendea
osatzen bizi izan zuen.

Egun batean belarra agertu zen bere teilatuan, eta beltzez
jantzitako gizonak esan bezala, familiari agur esan eta
Isuntzako hondartzara joan zen.

Bertan, beltzez jantzitako gizona aurkitu zuen eta heriotza zela aitortu zion, eta bere momentua heldu zela.

Arrantzalea ukitu eta hau harri bihurtu zen.

Hondartzan are asko edo gutxiago egonaren arabera, harri handi bat agertzen da eta Aitxitxa Makurra, heriotzak harri bihurtu zuen arrantzalea, dela esaten dute

1.- Azaldu ze testu mota da eta zergatik.

2.- Nor uste duzu dela beltzez jantzita zetorren gizona?

3.- Non gertatzen da istorioa?

4.- Nora joan behar duzu Aittitta Makurra ikusteko?

5.- Beti ikus daiteke? Zergatik?

6.- Laburpen txiki bat idatzi.
